



“B” GUTUN-AZALAREN ESKAINTZEI BURUZKO TXOSTENA
BALIO-JUDIZIO BATEN MENDEKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK

ESPEDIENTEAREN DATUAK

- Objektua: Mutrikuko Ondarbeltz hondartzako kantinaren eta komunen ustiapena.
- Epea: 2021 eta 2022ko udako denboraldiak, eta bere kasuan, 2023rako luzapena.
- Eskaintzak aurkezteko epea: maiatzak 20.
- Prozedimentua eta esleipen-modua: Irekia eta lehiaketa bidez, urgentziatzko prozedimentuz.

AURKEZTURIKO ESKAINTZAK

Aurkeztutako eskaintzak edo proposamenak lau izan dira:

- 1 zenb.ko proposamena. Erregistroko 823 sarrera zenbakia. Morena Patiño Alvarez and.
- 2 zenb.ko proposamena. Erregistroko 865 sarrera zenbakia. Josu Galindo Cáceres jauna.
- 3 zenb.ko proposamena. Erregistroko 866 sarrera zenbakia. Jaione Peña Urreisti and.
- 4 zenb.ko proposamena. Erregistroko 868 sarrera zenbakia. Iraia Perales Arrizabalaga and.
- 5 zenb.ko proposamena. Erregistroko 874 sarrera zenbakia. Leire Sabaris Arruabarrena and.

Prozedimendu honetan aurkeztu diren lau eskaintzagileen gaitasun finantzario-ekonomiko, tekniko eta profesionala eta galdatutako gainerako agiriak aztertuta, hirurak ontzat eman dira.

BALORAKETA IRIZPIDEAK ETA HAUEN HAZTAPENA

Oinarrietan zehazten diren balio judizio baten menpe dauden irizpideak kontuan izanik txosten honetan kontratazio mahaiaren iritzia ematen da, datu objektiboak kontutan hartuta eman beharreko balorazioaren proposamen bat egiten delarik. Kontuan hartu diren irizpideak, erabiliko diren giza baliabideak, aktibitate programa eta instalazioen gestioa. Baita ere aipatu, eskaintzen ezaugarri ahal den objektiboenetan eta judizio baliospenen menpe gutxien daudenak nabarmentzen saiatu da objektibotasuna ahal den neurrian bermatzeko.

1.- Aktibitate programa eta instalazioaren gestio plana

Atal honetan zerbitzuaren antolaketa eta kudeaketa orokorra baloratuko da eta bereziki giza baliabideak eta honekin harremanetan zerbitzua nola antolatuko den.

1. Morena Patiño Alvarez and.

Kantinak edukiko duen ekipamenduari egiten dio erreferentzia modu orokorrean (barra, labeak, elikagaiak manipulatzeko gunea, biltegia, hondakinak...). Ordutegia, komun garbiketa eta terraza-zerbitzua ere zehazten ditu. Jateko eskaintza modu zehatzean jasotzen du eta elikagai osasuntsuen aldeko apustua egingo duela adierazten du. Jarduerei dagokienez, tokiko artisauei beren lanak erakusteko aukera emango diela aipatzen du.

2. Josu Galindo Cáceres jauna:

Kantinaren ordutegiari eta janari-eskaintzari egiten dio erreferentzia, xehetasun handirik gabe. Covid19ari aurre egiteko neurriak hartuko dituztela adierazten du. Jardueri dagokienez, pandemia hobetu ahala musika zuzenean gozatzeko aukera planteatzen du.

3. Jaione Peña Urreisti and.:

Bi zerbitzu bereizten ditu: kantina eta zerbitzuak. Lehenengoan, jateko eskaintza orokorrean definitzen da, eta, bigarrean, komunen garbitasuna eta ekipamendua aipatzen dira. Covid19ari aurre egiteko neurriak zehazten ditu. Jardueri dagokienez, proposamen desberdinak egon daitezkeela esaten du, baina ez du ezer gehiago zehazten.

4. Iraia Perales Arrizabalaga and.:

Kantinako ekipamenduari dagokionez hobekuntzak aurkeztu ditu, tresna-elektrikoak, zutabeak, eta abar. Era berean, elbarrituentzako zerbitzu berezia ematea planteatzen du. Ordutegia eta, oro har, eskaintza gastronomikoa adierazten ditu. Garrantzi handia ematen dio komunen garbiketari. Birziklapena egitea proposatzen da. Jarduera gisa, kontzertuak, antzerkiak, eskulanak eta abar egitea planteatzen du.

5. Leire Sabaris Arruabarrena and.:

Kantinako ekipamenduari egiten dio erreferentzia oro har (hozkailuak, kafe-makina, izotz-makina, etab.). Eskaintza gastronomikoa ere definitzen du, herriko produktuei lehentasuna emanez. Birziklatzeari egiten dio erreferentzia, eta garrantzi handia ematen dio garbitasunari, pandemia-egoera dela eta, eta esaten du oso neurri zorrotzak hartuko direla. Kultura bultzatzeko ekintzak antolatuko dituztela esan du.

2.- Erabiliko diren giza baliabideak

Irizpide honetan erabiliko diren giza-baliabideak baloratuko dira, bereziki kontuan izango da argi azaldu izana eskaintzetan lanpostuek zein kualifikazio profesional izango duten eta izango dituzten funtzioak eta euskara maila.

1. Morena Patiño Alvarez and.:

Langile kopurua eta bakoitzaren funtzioak deskribatzen ditu, eta arduradun eta zerbitzarien artean 5 langile egotea proposatzen du. Organigrama eta langileak hautatzeko irizpideak aurkeztu ditu (emakumea izatea, langabezian egotea, euskara jakitea, etab.). Era berean, langileen profilak definitzen ditu, ostalaritzan esperientzia dutenak. Covid 19ri aurre egiteko neurriak ere jasotzen ditu.

2. Josu Galindo Cáceres jauna:

Printzipioz, negozioa 2 pertsonaren artean eramatea aurreikusten du, eta horietako bakoitzaren funtzioak deskribatzen ditu, baina ez du baztertzen langile gehiago kontratatzea beharren arabera. Ez du zehazten zer prestakuntza edo esperientzia duten ostalaritzaren sektorean. Emakumeei edo langabeei kontratazioan lehentasuna emateko konpromisoa hartzen du.



Mutrikuko Udala

3. Jaione Peña Urreisti and.:

Giza baliabideei dagokienez lantaldearen osaera jasotzen du, eta 4 pertsona lan egitea proposatzen du. Ez du zehazten ostalaritzan zer prestakuntza edo esperientzia duen. Emakumeen, langabeen eta euskararen erabileraren kontratazioari lehentasuna emateko konpromisoa hartzen du.

4. Iraia Perales Arrizabalaga and.:

Enpresa honek ez du ematen lan egingo duten pertsonen datu zehatzik, langile-kopurua izan ezik. Langile bakoitzaren eginkizunak ere ez ditu zehazten, baina adierazten du langileen kontratazioan garrantzi handia izango duela langabezia egoteak, esperientzia izateak eta euskararen erabilera egokia izateak. Lan-ordutegia zehazten du.

5. Leire Sabaris Arruabarrena and.:

Enpresa honek ez du lan egingo duten pertsonen datu zehatzik ematen, nahiz eta aipatzen duen langileen kontratazioan garrantzi handia izango duela langabezia egoteak, edota ikasleak izateak eta euskaraz egoki hitz egiteak. Zerbitzua emateko langileen kopurua eta funtzioak aipatzen ditu. Ostalaritza sektorean esperientzia duela esaten du.

ONDORIOA ETA PROPOSAMENA

Kontuan harturik baloraketa osotariko emaitza ondoko taulan jasotzen da:

ESKAINTZAGILEAK	Aktibitate programa/gestio plana (10 puntu)	Giza baliabideak (10 puntu)	GUZTIRA (20 puntu)
Morena Patiño Alvarez and.	5	6	11
Josu Galindo Cáceres jauna	3	4	7
Jaione Peña Urreisti and.	4	4	8
Iraia Perales Arrizabalaga and.	5	4	9
Leire Sabaris Arruabarrena and.	4	4	8

Ondorioz, "C" gutun-azala, hau da, Proposamen Ekonomikoa eta balorazio automatikorako irizpideak" ekainaren **1ean** irekiko da, **goizeko 12etan**, Mutrikuko Udaletxeko batzar aretoan, **ekitaldi publikoan**.

Mutrikun, 2021eko maiatzaren 31n

KONTRATAZIO MAHAIKO IDAZKARIA

Ioseba Iribar Garrastazu